



FUNDACIÓN BANCARIA **kutxa**  
**kutxa** BANKU FUNDAZIOA

**FUNDACIÓN BANCARIA KUTXA -  
KUTXA BANKU FUNDAZIOAK  
KUTXABANK SAn  
DUEN  
FINANTZA-PARTAIDETZAREN  
KUDEAKETA-PROTOKOLOA**

## AURKIBIDEA

1.	MOTIBAZIOA .....	3
2.	HELBURUAK .....	4
3.	FUNDAZIOAK KUTXABANKEN DUEN PARTAIDETZA KUDEATZEKO OINARRIZKO IRIZPIDE ESTRATEGIKOAK .....	4
3.1.	Kutxabankeko partaidetzaren helburua, eta partaidetza horrek, gizarte-jarduerari dagokionez, beste inbertsio-alternatiba batzuen aurrean eskaintzen dituen sinergiak edo abantailak.....	4
3.2.	Emaitzen banaketari lotuta aplikatuko den politika.....	5
3.3.	Banku-fundazioen artean itundutako ekintzarik ezaren aipamen espresua.....	5
4.	FUNDAZIOAREN PATRONATUAREN ETA KUTXABANKEKO GOBERNU-ORGANOEN ARTEKO HARREMANAK, BESTEAK BESTE, KONTSEILARIAK AUKERATZEKO IRIZPIDEAK ADIERAZIZ.....	6
4.1.	Fundazioak Kutxabankeko kontseilari gisa proposatuko dituen pertsonen hautaketan, ekainaren 26ko 10/2014 legeak exijitzen duena bazter utzi gabe, aplikatuko dituen irizpideak.....	6
4.2.	Komunikazio ona eta banku Fundazioari aplikatzekoak zaizkion lege-betebeharrak betetzeko beharrezkoa den informazioaren trukea ziurtatzeko Kutxabankekin ezarritako akordioak eta mekanismoak.....	6
5.	FUNDAZIOAREN ETA KUTXABANKEN ARTEAN ERAGIKETAK EGITEKO IRIZPIDE OROKORRAK, ETA INTERES-GATAZKAK SAIHESTEKO AURREIKUSITAKO MEKANISMOAK.....	7
5.1.	Talde barneko zerbitzuak.....	8
5.2.	Kutxabankekin finantza-zerbitzuak egiterakoan eratoritzen diren eragiketei aplikatu beharreko erregimena:.....	9
5.3.	Banku Fundazioaren Patronatuko kideen interes-gatazken erregulazioa.....	9
5.4.	Beste interes-gatazka kasu batzuk.....	10
6.	KONSOLIDAZIO FISKALA.....	10
7.	INDARRALDIA.....	10

**FUNDACIÓN BANCARIA KUTXA-KUTXA BANKU FUNDAZIOAK KUTXABANK  
SAn DUEN FINANTZA-PARTAIDETZAREN KUDEAKETA-PROTOKOLOA**

Fundación Bancaria Kutxa – Kutxa Banku Fundazioaren (aurrerantzean, “Banku Fundazioa”) Patronatuko kideek 2021eko apirilaren 29ko bilkuran Kutxabank SAn duen finantza-partaidetzaren kudeaketa-protokolo hau (aurrerantzean, “protokoloa”) idatzi eta sinatu dute, Aurrezki Kutxa eta Banku Fundazioei buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legearen (aurrerantzean, “26/2013 Legea”) 43. artikuluan eta Espainiako bankuak aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei bidalitako azaroaren 17ko 6/2015 Zirkularrean, balore-merkatu ofizialetan negoziatzera onartutako balioak jaulkitzen ez dituzten aurrezki-kutxen ordainsariei eta gobernu korporatiboari buruzko txostenen hainbat alderdiri eta banku-fundazioek kreditu-erakundeetan dituzten partaidetzen ondorioz dituzten betebeharrei buruzkoan (aurrerantzean, “6/2015 Zirkularra”), eta Banku Fundazioaren estatutueta 22. eta 43. artikuluetan aurreikusitakoa kontuan izanik.

**1. MOTIBAZIOA**

Fundación Bancaria Kutxa – Kutxa Banku Fundazioa, Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián – Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa Banku Fundazio bihurtzearen emaitza da, hori guztia 26/2013 Legearen 34. artikuluan eta Lehen Xedapen Iragankorrean aurreikusitakoaren arabera.

Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián – Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa Banku Fundazio bihurtu zen haren Batzar Nagusiak 2014ko urriaren 24an hartutako erabakiaren bitartez. Banku Fundazio bihurtzeko erabakia publiko egin zen Donostiako notario Guadalupe María Inmaculada Adánez García andrearen aurrean haren protokoloaren 1.410 ordena-zenbakiarekin 2014ko urriaren 31n sinatu zen eskrituraren bitartez, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan erregistratuta geratu zen 2014ko abenduaren 22an, F-382 zenbakiarekin.

Gaur egun, Banku Fundazioak % 32ko partaidetza dauka zuzenean Kutxabank SAn (aurrerantzean, “Kutxabank”) kapital sozialean; Kutxabank sozietate anonimoa da, Espainiako legeriaren arabera eratutakoa; helbidea Bilbon dauka, On Diego Lopez de Haro Kale Nagusiko 30-32. zenbakietan, eta Bizkaiko Merkataritza Erregistroan erregistratuta dago (Liburukia: 5.226, Liburua: 0, Folioa: 1, Orrialdea: BI-58.729, Inskripzioa: 1), eta kreditu-erakunde gisa Espainiako Bankuaren Banku eta Bankarien Erregistroan dago erregistratuta, 2095 zenbakiarekin.

26/2013 Legearen 32.2 artikuluan eta bere estatutueta 6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Banku Fundazioak bere jarduera nagusia bere gizarte-jarduerari arreta eskaini eta hura garatzera eta bere ondarea eta, ondorioz, Kuxak bere finantza-jardueraren zuzeneko egikaritzapena hari transferitu zion banku-erakundearen (aurrerantzean Kutxabank SA) duen partaidetza, eta bere helburuak betetz eskuratutako beste partaidetu batzuk behar bezala kudeatzera bideratzen du.

26/2013 Legearen 43. artikulua honako betebeharrak ezartzen ditu: kreditu-erakunde batean % 30eko partaidetza edo handiagoa duten edota hura kontrolatzeko adinako partaidetza duten Banku Fundazioetan, Merkataritza Kodearen 42. artikulua irizpideetako edozein aplikatzeagatik, dagokion kreditu-erakundearen duen finantza-partaidetzaren kudeaketa-protokolo bat eratzea, hura eratu denetik zenbatzen hasi eta bi hilabeteko gehieneko epearen barruan. Horretarako, Banku Fundazioaren Patronatuak kudeaketa-protokolo bat onartu zuen 2015eko otsailaren 12an, eta Espainiako Bankura bidali zuen 2015eko otsailaren 20an. Geroago, 2016ko otsailaren 18an, kudeaketa-protokolo hori 6/2015 Zirkularraren ondorioetara egokitzea onartu zen, eta Espainiako Bankura bidali zen 2016ko otsailaren 22an. Azkenik, 2016ko apirilaren 29an, kudeaketa-protokoloaren aldaketa onartu zen, eta 2016ko maiatzaren 3an bidali zen Espainiako Bankura, eta azkenik 2017ko apirilaren 28an Banku Fundazioaren Patronatuak protokoloaren 4.1 eta 5.1 epigrafeen egokitzapena onartu zuen, eta Espainiako Bankuari igorri ondoren, onartu egin zen eta banku-fundazioari helarazi zitzaioan 2017ko ekainaren 6an. Sozietateen gaineko zergari buruzko jardun- eta lankidetzaren protokolo bat sinatu denez Kutxabank SArekin 2021eko apirilaren 14an, kudeaketa-protokoloaren egokitzapena proposatzen da zirkunstantzia hori ere barnean hartzeko.

## **2. HELBURUAK**

Protokolo honek Banku Fundazioak Kutxabanken akziodun gisa beteko dituen oinarrizko jardun-printzipioak ezarri nahi ditu. Ildo horretan, protokolo honek honako gai hauek erregulatu nahi ditu:

- a) Fundazioak Kutxabanken duen partaidetzaren kudeaketa gidatuko duten oinarrizko irizpide estrategikoak.
- b) Banku Fundazioaren Patronatuaren eta Kutxabankeko gobernu-organoen arteko harremanak; besteak beste, kontseilariak aukeratzeko irizpideak adieraziz.
- c) Banku Fundazioaren eta Kutxabanken artean eragiketarako egiteko irizpide orokorrak, eta interes-gatazkak saihesteko aurreikusitako mekanismoak.

## **3. FUNDAZIOAK KUTXABANKEN DUEN PARTAIDETZA KUDEATZEKO OINARRIZKO IRIZPIDE ESTRATEGIKOAK**

**3.1. Kutxabankeko partaidetzaren helburua, eta partaidetza horrek, gizarte-jarduerari dagokionez, beste inbertsio-alternatiba batzuen aurrean eskaintzen dituen sinergiak edo abantailak.**

Banku Fundazioak, Kutxabanken duen partaidetzaren bitartez, erakundearen finantza-jarduera Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián – Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxaren bilakaera historikoarekin bat etor dadin, eta Kutxabankek bere jarduera tradizionalki garatu duen lurraldeetan bere lidergo eztabaidaezinari eutsi diezaion zainduko du. Azkenik, Kutxabanken duen partaidetzak Banku Fundazioari errendimendu ekonomikoak lortzeko aukera emango dio, bere fundazio-xedeak betetzeko eta bere gizarte-jarduera modu egokian garatzeko.

Aurrekoaren ildotik, Kutxabankek, bere finantza-jarduera egiterakoan, historikoki bere ibilbidearen bereizgarri izan diren kaudimen- eta errentagarritasun-printzipioei eusten ahaleginduko da Banku Fundazioa.

Kutxabankeko partaidetzak Banku Fundazioarentzat eta bere gizarte-jardueraren garapenerako eskaintzen dituen abantailak, beste inbertsio-alternatiba batzuekin alderatuz, honako hauek dira:

- (i) Banku Fundazioaren gizarte-jardueraren zabalkundea eta sustapena Kutxabanken sukurtsal-sarearen eta, hala badagokio, beste bide material batzuen bitartez egitea; eta
- (ii) Kutxabankeko bezeroen artean Banku Fundazioaren gizarte-jarduerari balioa emateko aukera errazten duten sinergiak sortzea.

### **3.2.Emaitzen banaketari lotuta aplikatuko den politika.**

Bankuaren administrazio-kontseiluari dagozkio Kutxabank SAREN emaitzen banaketari buruzko proposamenak. Banku Fundazioak, akziodun denez, emaitzen banaketari buruzko proposamenak onartzeko garaian kreditu-erakundeei kapital-errekerimenduei lotuta aplikatzekoa zaien indarreko legeria eta erakunde ikuskatzaileetatik datozen jarraibideak edo xedapenak izango ditu kontuan, horrela Kutxabanken baliabide propioak indartzen lagunduz, baina era berean dibidendu gisa banatutako kopuruak Banku Fundazioari bere gizarte-ekintza gauzatzeko aukera emango diola kontuan izanik, une bakoitzean gizarte-jarduerak inplementatzen dituen proiektu eta jardueren indartze eta garapenean parte hartuz.

### **3.3.Banku-fundazioen artean itundutako ekintzarik ezaren aipamen espresua.**

2011ko ekainaren 30ean, Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastian-Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxak (aurrerantzean “**Kutxa**”), Bilbao Bizkaia Kutxa, Aurrezki Kutxa eta Bahitetxeak (aurrerantzean “**BBK**”) eta Caja de Ahorros de Vitoria y Álava-Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxak (aurrerantzean “**Vital**”) integrazio-kontratu bat sinatu zuten, eta egun horretan bertan publiko egin zen Bilboko Notario Vicente María del Arenal Otero jaunaren aurrean, bere protokoloaren 972 zenbakiarekin. Kontratu hori betez, 2011ko abenduaren 22an Kutxak, BBK-k eta Vitalek euren finantza-negozia Kutxabanki eman zioten, horretarako banku-negozioen segregaziorako eskritura bana formalizatuz, Kutxabank SAN integratzeko. Hala eta guztiz ere, kudeaketa-protokolo honen onarpen-datan integrazio-akordioak ez du indarrean jarraitzen eta Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioa, Fundación Bancaria Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa eta Fundación Bancaria Vital-Vital Banku Fundazioaren aldetik ez dago itundutako jardunik Kutxabanken, zeinak Kutxa, BBK eta Vital banku-fundazio bihurtu izanaren ondoriozko erakundeak dira.

#### **4. FUNDAZIOAREN PATRONATUAREN ETA KUTXABANKEKO GOBERNU-ORGANOEN ARTEKO HARREMANAK, BESTEAK BESTE, KONTSEILARIAK AUKERATZEKO IRIZPIDEAK ADIERAZIZ.**

Banku Fundazioaren Patronatuaren eta Kutxabankeko gobernu-organoen arteko harremanak gauzatzeko eta, bereziki, Banku Fundazioak berari dagozkion Kutxabankeko kontseilariak izendatzeko proposamena, honako irizpide hauek izango dira kontuan, besteak beste:

- (i) Kutxabanken Administrazio Kontseiluaren egungo osaeraren kaltetan izan gabe, etorkizunean, Banku Fundazioak une bakoitzean Kutxabanken duen partaidetzarekiko proportzionala izango den kontseilari kopurua proposatuko du Banku Fundazioak, eta ondorioz, ordezkaritza proportzionalaren eskubidea egikaritzeko aukera erreserbatzen du;
- (ii) Banku Fundazioaren Patronatua, berari izendatzea dagozkion Kutxabankeko kontseilarien izendapena proposatzeko organo eskuduna da.

##### **4.1. Fundazioak Kutxabankeko kontseilari gisa proposatuko dituen pertsonen hautaketan, ekainaren 26ko 10/2014 legeak exijitzen duena bazter utzi gabe, aplikatuko dituen irizpideak.**

26/2013 Legearen 43.1.b) eta 3.2 artikuluetan eta Kutxabanken estatutu sozialen 25. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, patronatuak proposatzen dituen Kutxabankeko kontseilariak une bakoitzean aplikatzekoa den legerian eta Kutxabankeko estatutu sozialetan eta barne-erregelamenduetan ezarritako zintzotasun, esperientzia eta bateraezintasuneko betekizunak bete beharko dituzte, era berean kontuan izanik estatuko adituek edo aditu komunitarioek gai honi buruz jaulki dituzten eta kreditu-erakundeei aplikatzekoak diren gomendioak eta proposamenak kontuan izanik.

26/2013 Legearen 40. artikulua 3. epigrafean aurreikusitakoari jarraikiz, Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioaren Patronatuko ezein kidek ez du Kutxabankeko kontseilariaren izaera, eta, beraz, ez da ezein mekanismo espezifikorik aplikatu behar karguen bateraezintasunaren ondoriozko interes-gatazkak saihesteko.

##### **4.2. Komunikazio ona eta banku Fundazioari aplikatzekoak zaizkion lege-betebeharrak betetzeko beharrezkoa den informazioaren trukea ziurtatzeko Kutxabankekin ezarritako akordioak eta mekanismoak.**

Banku Fundazioa, 26/2013 Legean (eta, bereziki, 44. artikuluan) aurreikusitakoaren arabera, hainbat betebeharrak lotuta dago, eta, horiek betetzeko, Kutxabanken finantza- eta kontabilitate-informazioa eskuratu behar du nahitaez.

Banku Fundazioa, gainera, eta 26/2013 Legearen 46. artikulua arabera, Espainiako Bankuaren ikuskapenari lotuta egongo da. Ikuskapen-zeregin horiek egikaritzuz, Espainiako Bankuak informazio-errekerimenduak egin ahal izango dizkio Banku Fundazioari, errekerimendu horiei erantzuteko Kutxabanken informazioa eskuratzea beharrezkoa denean.

Banku Fundazioak eta Kutxabanke beraien plangintzako eta kudeaketa-kontrolako zereginak betetzeko eta erakunde erregulatu gisa dituzten betebeharrak puntualki betetzeko, horietako bakoitzak besteari beharrezko informazioa, erabilgarritasunari lotuta, eman beharko dio bere legezko betebeharrak bete ahal izan ditzan, besteak beste:

- (i) finantzetako egoera-orriak prestatzea;
- (ii) 26/2013 Legearen 44. artikuluan aurreikusten den finantza-plana prestatzeko betebeharra betetzea;
- (iii) Espainiako Bankuari, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari eta beste ikuskapen-agintari batzuei informazioa emateko betebeharrak betetzea;
- (iv) baliabide propioen, inbertsio-koefizienteen eta kaudimen-marjinaren jarraipen xehatua egitea;
- (v) arrisku-analisiak egitea;
- (vi) egoera makroekonomiko desberdinetan erakunde partaidetuaren baliabide propioen premien estimazioak egitea;
- (vii) alderdi fiskalen azterketa eta jarraipena egitea;
- (viii) Espainiako Bankuaren ustez Kutxabanken kudeaketa ona eta zuhurra eta aplikatzekoak zaizkion ordenazio- eta diziplina-arauak modu iraunkorren betetzeko ahalmena bermatzeko beharrezkoa den beste edozein neurri; eta
- (ix) aurrekoekiko osagarria edo gehigarria den beste edozein neurri, betiere ikuskapen-agintariak edo eskumena duen beste edozein organismo erregulatuak legez eskatzen badu.

Era berean, Kutxabankek Banku Fundazioaren eskura jarri beharko du fundazioak egungo eta etorkizuneko kaudimen-arauditik eratorritako betebeharrak bete ahal izateko beharrezkoa den informazio guztia.

Klausula honek aipatzen duen informazioari dagokionez:

- (i) informazioa eskatu den helbururako bakarrik eta eskusiboki erabili beharko da;
- (ii) Banku Fundazioari eta Kutxabanki buruzko “informazio pribilegiatua” haien sailen artean bideratuko dela saihesteko beharrezko neurriak ezarri beharko dira, informazio hori soil-soilik ezinbestekoa den arlo eta pertsonengana iritsi dadin (aplikatzekoa denean, kanpo-aholkulariak barnean hartuz); eta
- (iii) segurtasun-neurriak ezarri beharko dira informazioa zaindu, artxibatu, eskuratu, erreproduzitu eta banatu ahal izateko.

Banku Fundazioak eta Kutxabankek beharrezko neurriak ezarri beharko dituzte informazio-konpromisoak arduraz bete ahal izateko, horretarako finkatu diren informazio-fluxuak ahalbidetzeko bitartekoak ezarriz, eta edozein kasutan konfidentzialtasun-konpromisoak betetz.

## **5. FUNDAZIOAREN ETA KUTXABANKEN ARTEAN ERAGIKETAK EGITEKO IRIZPIDE OROKORRAK, ETA INTERES-GATAZKAK SAIHESTEKO AURREIKUSITAKO MEKANISMOAK.**

Koordinazio eta gardentasun egokia lortu nahi dituen harreman-esparru bat ezartzen da, bi helbururekin: (i) alde batetik, Banku Fundazioaren eta hari lotutako erakundeen eta

Kutxabanken arteko eragiketak egiteko irizpide orokorrak arautzea, eta interes-gatazkak gutxitzea eta arautzea ahalbidetzen duten mekanismoak ezartzea, eta bestalde, (ii) Banku Fundazioa Kutxabanken akziodun izatearen ondoriozko interes-gatazkak agertzea saihestuko dutenak.

Harreman-esparru hori honako parametro hauen arabera artikulatuko da:

- (i) irizpide orokorrak ezartzea eragiketak edo zerbitzugintza merkatuko baldintzetan egiteko, baita Banku Fundazioak Kutxabanki egiten dizkion eta egingo dizkion zerbitzuen eta Kutxabankek, era berean, Banku Fundazioari egiten dizkion edo egingo dizkion zerbitzuen identifikazioa;
- (ii) Banku Fundazioaren eta Kutxabanken artean beharrezkoa den informazio-fluxua lortzeko mekanismoak ezartzea, Kutxabankeko bezeroen artean Banku Fundazioak egiten dituen gizarte-jardueren balio-ematea errazteko sinergiak sortzeko, eta hurrenez hurreneko erregulatzailen aurrean errekerimenduak eta betebeharrak betetzeko eta, bereziki, Banku Fundazioak 26/2013 Legean eta hura garatzen duen araudian aurreikusitako betebeharrak bete ahal izan ditzan;
- (iii) Banku Fundazioaren Patronatua, une oro, Kutxabanken akziodun gisa Banku Fundazioari aplikatzekoak zaizkion leialtasunaren alorreko betebeharrak eta eginbeharrei buruz eta Banku Fundazioak Kutxabanken akziodun izateagatik izan ditzakeen interes-gatazkei buruz behar bezala informatuta dagoela bermatzen duten informazio-mekanismoen ezarpena; eta
- (iv) Kutxabanki buruzko aipamena egiten denean, Kutxabank Taldea osatzen duten sozietateak ere barnean daudela ulertuko da, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera.

### **5.1. Talde barneko zerbitzuak**

Banku Fundazioaren eta Kutxabanken artean bi zerbitzugintza-arlo handi daude:

- (i) Kutxabankek Banku Fundazioari eta haren mende dauden erakundeei banku- eta finantza-zerbitzuak eskaintzea. Bereziki eta, besteak beste, ezohiko izaeraz, finantzaketa ematea, kreditu, mailegu edo antzeko eragiketa moduan, Kutxabanken arrisku-politiken esparruan; eta
- (ii) Kutxabanken hainbat zerbitzu Banku Fundazioari egitea, eta alderantziz. Adibide gisa eta inolako mugarik ezarri gabe, errentamendu-zerbitzuak eta haiei lotutakoak dira, baita artelanen erakusketa ere.

Edonola ere, Banku Fundazioaren eta Kutxabanken artean egindako zerbitzuak beti idazki bidez konstaraziko dira, eta, kontratu partikular bakoitzean ezarritakoa galarazi gabe, honako printzipio orokor hauek beteko dituzte:

- (i) gardentasuna eta zerbitzugintza merkatu-baldintzetan egitea, hala zuzenean nola horretarako azpikontrataturako hirugarrenen bitartez;
- (ii) tratu-lehentasuna, alderdiek une bakoitzean hirugarrenei eragiketa edo zerbitzu horretarako eskaintzen ari diren baldintzarik onenak elkarri eskaintzeko konpromisoarekin;



- (iii) alderdiek zerbitzuak ahalik eta ardurarik handienarekin eta eskura dituzten baliabide guztiakin egiteko hartutako konpromisoa; eta
- (iv) alderdiek konfidentzialtasunari eusteko eta zerbitzugintza horren ondorioz eskura dezaketen informazioa ez zabaltzeko konpromisoa, agintari judizialek, erregulatzailleek eta/edo legeak eskatzen dutenean salbu.

### **5.2. Kutzabankekin finantza-zerbitzuak egiterakoan eratortzen diren eragiketei aplikatu beharreko erregimena:**

Finantza-zerbitzuak egiterakoan eratortzen diren eragiketei dagokienez (besteak beste, epe luzerako aktiboko eragiketak, kreditu-, abal- eta berme-eragiketak edo baliokideak fundazioaren eta Kutxabanken artean), beharrezkoa izango da fundazioaren patronatuak alde aurretik hori erabakitzea.

Patronatuak atal honetan xedatuta dagoena betez onartu dituen eragiketen jarraipena eta kontrola patronatuak berak egingo ditu. Horretarako, fundazioaren zuzendari nagusiak eragiketa bakoitzaren egikaritzearen eta garapenaren berri emango du bileretan, eta urteko kontuen memorian eragiketa horiei eta ekitaldia ixten denean duten egoerari buruzko aipamen bat egingo da, eta Gobernu Korporatiboaren Txostenean ere eragiketei buruzko informazioa emango da.

Aurreko puntuan aurreikusten dena aparte utzi gabe, patronatuaren alde aurreko baimena ez da beharrezkoa izango Banku Fundazioak Kutxabank SArekin kontratatu nahi dituen eragiketak aktibo-eragiketak direnean eta honako hiru baldintza hauek betetzen dituztenean:

- Funtsean estandarizatuta dauden eta produktu edo zerbitzu horien kontratazioan Kutxabank SAko bezeroei normalki aplikatzen zaizkien baldintzak dituzten kontratuetan formalizatzea.
- Orokorrean ezarrita dauden prezio edo tarifekin egitea, edo bestela, tarifarik ezarrita ez dagoenean, merkatuko ohiko baldintzetan egitea, antzeko ezaugarriak dituzten bezeroekin izandako harreman komertzialetan aplikatzen direnen antzekoak, eta
- Haien zenbatekoa 200.000 eurotik gorakoa ez izatea.

### **5.3. Banku Fundazioaren Patronatuko kideen interes-gatazken erregulazioa.**

Banku Fundazioaren estatutuetako 46. artikulua, interes-gatazken alorrean patronatuko kideak lotzen dituen erregulazioa biltzen du. Ondorio horietarako, Banku Fundazioko idazkariari jakinarazi beharko zaizkio fundazioarekin eta Kutxabankekin zerikusia duten eta norbera edo lotutako pertsonak eraginpean hartzen dituzten interes-gatazka guztiak:

- a) Patronatuko kidearen ezkontidea edo antzeko afektibitate-harremana duen pertsona, eta odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailara arteko senideak.
- b) Patronoek edo haiei lotutako pertsonak beren kabuz edo haien ordeztarritako pertsona baten bidez partaidetza duten sozietate edo erakundeak, ehunekoa edozein izanik ere.
- c) Patronoek edo haiei lotutako edozein pertsonak bere kabuz edo haren ordeztarritako pertsona baten bidez administrazio edo zuzendaritzako kargu bat betetzen dueneko

sozietate edo erakundeak, edota edozein arrazoirengatik kargu-sariak ematen dizkietenak.

Honela definitzen da interes-gatazka: *“patronatuko kide bat edo haren ordezkaria kontratatu nahi izan eta kontratazio horrek haren funtzioen egikaritzapen inpartzial eta objektiboa eraginpean har dezakeenean edo egikaritzapen horretan interes laborala, pertsonala, profesionala, familiarra edo negozio-arlokoa gerta daitekeenean, edo patronoen interes pertsonalak eta Fundazioaren interesek zuzenean edo zeharka talka egiten dutenean”*, aurreikusita egonik, kasuan-kasuan, eragiketa horien onarpena patronatuari egokituko zaiola, eta Auditoria eta Kontrol Batzordearen alde aurreko txostenaren ondoren hartuko ditu, txostenik izanez gero. Patronatuko kideen gehiengo osoa beharko da onartzeko, gatazkaren ondorioz bozkatu ezin duten kideak konputatu gabe, eta patrono bakoitzak zer bozkatu duen aktan jasota geratuko da.

#### **5.4. Beste interes-gatazka kasu batzuk**

Bere jardunean, Banku Fundazioak honako hau egin beharko du: (i) merkataritza-sozietateetako akziodunei eta, bereziki, kreditu-entitateen akziodunei aplikatzekoak zaizkien leialtasunaren alorreko betebeharrak eta eginbeharrak bete, eta era berean, (ii) Kutxabankek akziodun den heinean jarduerak egitearen edo eragiketak egikaritzaren ondorioz eragin ditzakeen balizko interes-gatazkak kontuan izan.

### **6. KONSOLIDAZIO FISKALA**

Mendeko erakunde den aldetik, Sozietateei buruzko Zergaren 2112B zenbakiko Talde Fiskalean sartuta dago Banku Fundazioa, zeina Bizkaiko Lurralde Historikoaren barruan eratu baitzen Bizkaiko Lurralde Historikoaren Sozietateei buruzko Zergaren abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren arabera, eta ondorioekin 2014ko urtarrilaren 1ean hasitako zergalditik aurrera, talde horretako erakunde nagusia Kutxabank izanik. Horri dagokionez, 2021eko apirilaren 14an Banku Fundazioak eta Kutxabankek jardun- eta lankidetzatza-protokolo bat sinatu dute Sozietateei buruzko Zergan.

### **7. INDARRALDIA**

Protokolo hau indarrean egongo da Banku Fundazioak Kutxabanken kapitalean % 30eko partaidetza edo handiagoa duen bitartean, edota —txikiagoa izanik— Merkataritza Kodearen 42. artikulua edozein irizpideren arabera Kutxabank kontrolatzea ahalbidetzen dion edozein partaidetza duen bitartean.

**FUNDACIÓN BANCARIA KUTXA – KUTXA BANKU FUNDAZIOAREN Patronatuak 2021eko apirilaren 29an egindako bilkuran onartu du Protokolo hau.**